

EKITALDIETARAKO GUNEAK

Great Wine Capitals
Global Network ...A World of Excellence
Wine Tourism as strategy for everyone

GUGGENHEIM BILBAO

EKITALDI KORPORATIBOETARAKO GUNEAK

Kide Korporatiboek hainbat gune dituzte erabilgarri laneko bilerak, aurkezpenak, ekitaldi sozialak eta era guztietako enpresa-ekitaldiak egiteko.

ATRIOA Museoaren benetako bihotza da, eta Frank Gehryren diseinu arkitektonikoaren gune neurgaitzaile bat. 55 metroko altuera du eta 900 m² inguruko azalera, eta bertatik irits daitezke areto guztietara eta kanpoko terrazara. Museoko Atrioa aparteko lekua da gehienez 400 lagunentzako gala-afariak, 800 gonbidaturentzako koktelak edo beste edozein elkarraldi interesgarri egiteko (sari-banaketak, aurkezpen komertzialak...). Museoa publikoarentzat itxita dagoenean erabil daiteke.

ATONDOAK 230 m² neurtzen ditu eta 150 pertsona (zutik) hartzeko gehieneko edukiera du. Entzungela eta Atrioa ondoan dituzenez gero, leku aproposa da ekitaldi sozial bat antolatzeko Entzungelan egingo den ekitaldi baten osagarri gisa, edo gonbidatuen talde txikiago bati koktel bat eskaintzeko. Museoa publikoarentzat itxita dagoenean erabil daiteke.

ENTZUNGELA Museoak duen gunerik egokiena da bilerak, prentsurrekoak edo jarduera kulturalak egiteko. 300 pertsonarentzako edukiera du, eta sarbide independentea, erakusketa-eremuetatik bereizita. Beharrezko ikus-entzunezko baliabide guztiak ditu, aurkezpenak ordenagailu, bideo eta zinema bidez egiteko. Edozein egunetan eta edozein ordutan erabil daiteke.



EKITALDI KORPORATIBOETARAKO GUNEAK

LIBURUTEGIA leku atsegina da, Frank Gehryk diseinatutako altzariz hornitua. Bertan gehienez 30 pertsonarekin egin daitezke bilerak. Bigarren solairu bat du bereizitako guneekin, VIP gune gisa erabiltzeko edo harrera txikiak egiteko. Edozein egunetan eta edozein ordutan erabil daiteke.

HEZKUNTZA-GUNEA erabilera anitzeko espazio bat da, bi solairutan banatua. Bertan, ekitaldi beraren barruan, 40 pertsona arteko bilerak eta gehienez 80 gonbidatu hartzen dituzten koktelak egin daitezke. Gune hori bertan eskola-tailerrik ez dagoenean dago erabilgarri.

MUSEOAREN ORDUTEGIA
Orokorra: asteartetik igandera,
10:00etatik 19:00etara
Berezia (Aste Santua eta uda):
asteleheneretik igandera, 10:00etatik
20:00etara



GUGGENHEIM BILBAO